

ENPRESEN FOCUS GROUP, TXORIERRIKO 2025-2030 JARDUERA PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEKO

Posted on 24/10/2024 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Bizkaia Orekan Sakonduz](#), [Tokiko eta lurraldeko ekonomia sustapena](#), [Txorierri](#)

EGAZ Txorierriko garapen agentziaren laguntzarekin, gaur Zamudion hogeitabi enpresak parte hartu duten enpresa-topaketa bat egin da.

Pau Muñoz gure lankideak gidatu du bilera, eta saio interaktibo bat dinamizatu du bertaratu direnekin. Saioari esker, enpresa-sektorearen kezka garrantzitsuenetako batzuk ezagutu ahal izan dira. Talentua erakartzeko zailtasunak, berrikuntzaren erronka, azpiegiturak eta ekipamenduak hobetzea dira enpresetako ordezkarien artean azaleratu eta partekatu diren gaiak. Baina beste gai asko ere aldarrikatu dira eztabaidan, nazioartekotzearekin, enpresen arteko lankidetzarekin, belaunaldien arteko erreleboarekin edo maila anitzeko gobernantzarekin zerikusia duten gaiak, eskualdea osatzen duten pertsona eta eragile guztien artean eskualdea eraikitzen jarraitu ahal izateko elementu nagusi gisa.

Ekarpen horiekin guztiekin, egindako diagnostiko-prozesutik eratorritako hausnarketekin batera, erronka bat dugu orain: eskualdeari etorkizun garrantzitsu eta jasangarri bat eraikitzen lagunduko dion ibilbide-orri bat taxutzea, bideratzea eta artikulatzea.

Zamudioko alkatea izan da ekitaldiko buru, udalerrri guztien ordezkari gisa. Eskerrak eman nahi dizkiegu Egazi eta Foru Aldundiari ekitaldia antolatzeagatik. Eta, batez ere, bertaratutako guztiek egindako ahalegina aitortu nahi dugu, beren denbora preziatua guztion onerako eta beren jarduerara garatzen duten eskualdearekiko konpromiso kolektiborako inbertituz.

Eskerrik asko.





